



BULARRETIK MINTZORA

Egitasmoa

Haur txikien irakurketa
ohituren sustapena
etxean, eskolan eta liburutegian.



IRAKURRI AURRETIK IRAKURRI

Jaiotzean, haurrak ez zaituzte oso ondo ikusten, baina entzumenaren bitartez, zuen ahotsaren intentzioak interpretatzen ditu. Haurraren lehen "liburu" zuen ahotsa eta aurpegia dira.

Kantak, hizkuntz jokoak eta ipuin txikiak ikasi, eta ahots bizian erabili; kilimak eginez, haurra kulunkatuz, trostan jarriz, atzamarrak zenbatuz...



ORDU LAURDEN BAT BAKARRIK

Haurrari istorioak kontatu eta irakurri familian; honek lagunduko baitio bizitzan oinarri afektibo eta intelektual sendoak eraikitzen.

Aukeratu zure gustuko eta haurraren gustuko liburuak, eta behin eta berriz irakurri, haurrak irakurtzen ikasi badu ere.

NONAHI IRAKURRI

Hondartzan, sendagilearen zain zaudetenean, trenan, izeba-osabaren etxera zoaztenean... Liburuak beti zuen ondoan.

Liburuak partekatzea dibertigarria da; ideiak sortzen dira, ametsak eta nahiak azaldu...

Egunero ordu laurden bat apurtxo bat baino ez da, eta, aldi berean, asko da.

www.galtzagorri.org
www.bularretikmintzora.org

